


Elkartek 44

INFORMAZIO ALDIZKARIA



Cogoratu ...

ARABA

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 96-98 behea
Tel. eta Faxe: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxe: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxe: 94 405 36 69
48014 BILBAO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

%100ean birziklatutako paperean inprimatua

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.

GIPUZKOA

- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **AGI**
Gipuzkoako Ikusmen Urria Dutenen Elkarte.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonetik kristau senide-tasuna.
- **ASPARGI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BEGIRIS**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte.
- **DEBABARRENIKO GUTXITU FISIKOAK.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **ACCU**
Bizkaiko Crohnen Eritasuna eta Ultzeradun Koltisa duten Gaixoen Elkarte.
- **ADELA**
Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren Bizkaiko Elkarte.
- **ADELES**
Bizkaiko Lupus Eritematoso Sistemikoa duten Gaixoen Elkarte.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte.
- **ADISA**
Desgaitasuna duten Pertsonen Santurtziko Elkarte.
- **AHEVA**
Bizkaiko hemofiliaren elkarte.
- **ALCER**
Bizkaiko Giltzurruneko Gaixotasunen Aurkako Elkarte.
- **ARGIA**
Bizkaiko Ostomizatuen Elkarte.
- **ASEBI**
Asociación Bizkaia Elkarte Espina Bifida e Hidrocefalia.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko Haur Minbiziduen Gurasoen Elkarte.
- **AVAH**
Bizkaiko Ataxia Hereditarioen Elkarte.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuro-muskularren Elkarte.
- **BIDARI**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Ermuko Elkarte.
- **BIZKEL**
Bizkaiko Bizkarmuinaren Kaltetuak.
- **CODISFIBA**
Barakaldoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.
- **FRATER**
Elbarrituen eta Gaixoen Kristau Elkarte.
- **LEVAR**
Artritis Reumatoidea duten Pertsonen Bizkaiko Elkarte.
- **EFELA**
Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Arratiako Elkarte.

AURKIBIDEA

Orokorra

Aparkatzeko txartela	4
Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren Legea	5
Arreta Goiztiarra	6
2020rako Enpleguaren Euskal Estrategia	7
Turismo Legea.....	8
Larrialdi Sozialeko laguntzak	8
Etxebizitza duina eta egokia legez okupatu ahal izateko sarbidearen eskubide subjektiboa	9
Enplegurako lanbide-heziketa Euskadin.....	10
Erakundeetako mahaietan, foroetan eta jardunaldietan partaidetza	11

Araba

Oztopoak kentzea eta lizentziak baliogabetzea	12
Emakunde	13
Logela egokituak Txagorritxun eta ospitalearen birmoldaketa	13
I World Kafea Araba ESI 2016	14
Desgaitasuna duten pertsonentzako banakako laguntzak	15
Parte-hartzea	16
Gasteiz hobetuz	18

Bizkaia

Ginekologia- eta ugalketa-arreta Bizkaian	19
Garellanoko geltoki berriko irisgarritasuna.....	19
Etxebarriko lantzaderarekin lotutako epaiketa	20
Irisgarritasuna Bilboko Metroan	21
Gizatrans txartela.....	21
Urduñako manifestazioa: irisgarritasuna Renfeko trenetan	22
Bizitza independentea	23
Tartekari Sarea	23
Aldi baterako plazak “Etxegoki” laguntza duten apartamentuetan	25

Gipuzkoa

Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharren azterketa-diagnostikoa ...	26
Donostiako autobus-geltokia eta irisgarritasun unibertsala	28
Desgaitasuna duten pertsoneri eta buru-nahasmendua duten pertsoneri arreta eskaintzeko ereduak....	29
Autobusak: araudi berria eta desgaitasuna duten bidaiarientzako arreta-zerbitzua	30
Gipuzkoako Foru Aldundiaren lan-poltsak.....	32
elkartu, Sare Sozialetan ikusgai.....	32

ONARTU DUTE DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO APARKALEKU TXARTELARI BURUZKO DEKRETUA

Martxoaren 22an onartu zuten 50/2016 Dekretua, mugigarritasun mugatua eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkaleku-txartela arautzen duena. Dekretu horren bidez, Euskadiko araudia (1056/2014 Errege Dekretua) Estatuko araudiko oinarrizko eskakizunen arabera egokitu da. Araudi horrek gehitu dituen berrikuntza nagusien artean, aparkatzeko txartela lortzeko eskubidearen aitortpena honako pertsona hauei ere handitzea dago:

- Nolabaiteko ikusteko desgaitasuna duten pertsonak.
- Desgaitasuna duten pertsonen garraio kolektiboaz arduratzen diren eta Gizarte Zerbitzuen Sistemako edo AmAs-ko (Autonomiari eta Mendekotasunari Arreta Emateko Sistema) gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak.
- Modu iraunkorrean bizitzeko funtzioetarako gailu teknikoan mende dauden edo larritasun berezia duten 3 urtez azpiko adingabeak.
- Mugigarritasun mugatuko baremoan, mugigarritasuneko mugaren bat duten eta gaixotasun neurodegeneratiboak dituzten pertsonak.
- Mugigarritasun mugatua duten pertsonentzako behin-behineko aparkatze-txartela txertatzea nahiz eta horren irizpen ofizialki ez den eman, muturreko larritasuna biltzen duen gaixotasuna edo patologia dela eta.

Araudia prestatzeko prozesuan, Elkarteanek Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin bilera egin zuen eta erakunde eskudunei Dekretuaren zirriborroei buruzko iritzia eta proposamenak helarazi zizkien. Horre-

kin lotuta, aparkatzeko txartelaren titularren baldintzarekin lotutako luzapen bereizi gabearekin ez zegoela ados jakinarazi zuen, iritzi eta ohar hauek direla eta:

- 1) Mugigarritasun mugatuko pertsonentzako plazen erreserba eskuduntza duten erakunde publikoek ofizialki aitortutako desgaitasuna eta mugigarritasun mugatua duten pertsonen mugatu beharko litzaieke modu eskusiboan eskubide horren titular diren heinean. Dekretua zabaldu zaien gainerako pertsonen ere bai, baina ofizialki akreditatutako mugigarritasun mugatua dutenean bakarrik. Elkartean osatzen dugunon ustez, ezin daitezke 1971/1999 Errege Dekretuak (desgaitasun mailaren aitortpenari, adierazpenari eta kalifikazioari buruzkoa) dituen gabeziak aparkatzeko txartelaren Dekretuan ordezkatu edo arintzen saiatu. Ezin daitezke balorazio-tresnaren gabeziak zuzendu zerbitzu, prestazio edo eskubide bakoitzeko arauetan baldintza bereziak edo espezifikoa gehituta. Gainera, kontuan izan behar da irisgarritasunari buruzko araudiak xedatutakoa betez, mugigarritasun mugatuko pertsonentzat erreserbatutako eta egokitutako plazen neurriak eta dimentsioak pertsona horien gorabeherak eta zailtasunak kontuan hartuta espresuki egokituta daudela (zehazki, gurpildun aulkiak edo mugitzeko antzeko beste laguntza tekniko batzuk behar dituzten pertsonen espazio-beharrak direla eta).
- 2) Egokitzat jo da desgaitasuna eta mugigarritasun mugatua duten pertsonak izan gabe, erakunde publiko eskudunek egiaztatutako eta aitortutako mugigarritasun-zailtasun dituzten pertsonen aparkatzea errazteko ekintza positiboko beste neurri batzuk txertatzea. Gainera, Elkarteanek horien artean gaixotasun neurodegeneratiboak edo desgaitasun organikoa dutenak ere sartzea proposatzen zuen. Pertsona horiek neurri batzuetarako sarbidea izango lukete: aparkalekuen erreserba, aparkaleku mugatuetan aparkatzea denbora-mugarik gabe, zamalanetako eremuetan aparkatzea, justifikatutako arrazoiek eragindako geldialdia edo zirkulazio mugatuko eremuetara sarbidea, adibidez. Baina ez lukete desgaitasuna duten

pertsonentzat egokitutako tokietan aparkatzeko aukerarik izango. Hori ofizialki aitortutako mugigarritasun mugatua eta desgaitasuna duten pertsonentzat egongo litzateke mugatuta modu esklusiboan.

- 3) Inola ere ez lirateke eskubide horien titularren artean sartu beharko desgaitasuna duten pertsonen garraiora bideratutako ibilgailuen titularrak diren pertsona fisikoak edo juridikoak. ELKARTEAN osatzen dugunon ustez, ez da egokia zerbitzu horiek eskaintzen dituzten enpresek edo erakundeek desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela eskuragarri ahal izatea; izan ere, badituzte beste aukera batzuk ere: ibiak, adibidez, edo beren jarduera errazten duten eta indarrean dagoen araudian aurrez ikusitako beste aukera batzuk.

Azkenik, onartutako testuak ez ditu aurrez ikusi Elkarteanen ohar eta planteamenduetako asko. Edonola ere, ezinbestekoa izango da erreserbatutako plazen ehunekoa bermatzea eta eguneratzea eskubide hori duten pertsona guztien ahalmena estali ahal izateko. Zehatz esanda, ezinbestekoa da ofizialki aitortutako (irrigarritasun arloan aplikagarria den araudiaren arabera) desgaitasuna eta mugigarritasun mugatua duten pertsonentzat gaur egun erreserbatuta dagoen tokien ehunekoa bermatzea (gaur egun, 40tik bat edo zatikia).

Azkenik, Dekretu berriak jasotzen ditu txartela lortzeko administrazio-prozedurari buruzko edukiak, indarraldiaren erregimena eta txartela eskatzeko ereduak. Gai horri buruzko informazio gehiago eskatzeko, aparkatzeko txartela nola

eska daitekeen jakiteko eta horrek biltzen dituen eskubide eta abantailak ezagutzeko, zuen elkartera jo dezakezue.

EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO LEGEA ONARTU DUTE

Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Hirugarren Sektorereko 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea onartu du. Arau berriak juridikoki zehazten ditu Euskadiko hirugarren sektore soziala, haren ezaugarriak, printzipioak eta betebeharrak, eta administrazio publiko ugariekin eta esku-hartze sozialaren esparruko beste gizarte-eragile batzuekin solaskidetzarako guneak ezartzen eta sendotzen ditu araudi mailako prozesuetan partaidetza aktiboa izateko zein gizarte-politika publikoak diseinatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko. Era berean, hirugarren sektorearen garapena errazten du beste hainbat neurriren artean gizarte-egitura, partaidetza soziala eta euskal gizartearen antolatutako elkartasuna sendotasuna sustatzeko estrategia ezarrita. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia sortzea ere biltzen du. Horren helburua sektoreko erakundeen eta sareen egoera eta bilakaera ikertzea eta aztertzea da.

Elkartean osatzen dugunon ustez, garrantzitsua da Euskadiko Hirugarren Sektorerako lege horrek ekarri duen aurrerapena, baina ez da gaude ados arauak jasotzen dituen eduki batzuekin. Alderdi horietako batzuk Elkarteanek Eusko Legebiltzarraren aurrean azaldu zituen EH BILDU eta Euskal Sozialistak (PSE-EE) legebiltzarreko taldeek hala eskatuta egindako agerraldian. Izan ere, Elkarteaneko kideok Hirugarren Sektoreak gizarte-eraldaketako eragile aktibo gisa betetzen duen rola aitortzeko, bultzatzeko eta babesteko



duen beharra planteatu dugu. Horren guztiaren helburua gizarte solidarioa, bidezkoa, parte-hartzailea eta demokratikoa lortzea da eta ez soilik gizarte-ekintzailtzako zerbitzuen eta eragileen erakunde kudeatzaile gisa betetzen duen rolari dagokionez (horixe da onartutako arauaren lehentasunezko gunea). Gai hauekin ere ez gaude ados:

- Ez da Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen izaera independentea eta autonomia bermatzen; izan ere, ez da irabazi-asmoa duten eta/edo administrazio publikoek gobernu-organoeetan presentzia izatea eragozten.
- Gizarte-ekimeneko erakundeen eskakizunen artean ez dago sartuta jardueraren hartzaile diren pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen eta/edo komunitateen eskubideak eta interesak ordezkatzeko baldintza. Elkarteanen us-tez, horixe da Hirugarren Sektoreko erakunde izaera lortzeko oinarrizko baldintza.
- Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen izaeratik ez daude modu esplizituan kanporatuta merkatuko produkzio-erakunde pribatuak, merkatuaren bidez bazkideen beharrak asebetetzeko sortutako enpresak eta beste araudi batzuen arabera erregulazioa (ekonomia soziala) dutenak.

ARRETA GOIZTIARRAREN DEKRETUA ONARTU DA

Esusko Jaurlaritzak 2016ko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua, EAEko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa, onartu du. Hala, esparrua ezartzen du esku-hartze eredu eragingarria eta kalitatezkoa abian jartzeko garapenean arazoak dituzten edo horiek jasateko arriskua duten 0 eta 6 urte arteko haurrei bideratuta.

Ereduaren xedea diziplinarteko orientazioan inplikaturako sail, sistema eta profesional ugarien jardueren koordinazioa bermatzea da.

Adin-tarte horretako haurren % 10, gutxi gorabehera, dago bere garapenarekin lotutako arrisku-egoeran edo garapeneko arazoak ditu. Horrek agerian uzten du garrantzi sozial handiko arazoaren aurrean gaudela. 0 eta 6 urte arteko arreta goiztiarra oso garrantzitsua da garapena bermatzeko eta mendekotasun-egoerak prebenitzeko.

Adin horietan, haurren garapenaren ezaugarri nagusietako bat izaten da funtzio garrantzitsuak pixkanaka eskuratzea: jarreraren kontrola, mugitzeko autonomia, komunikazioa, hizkuntza eta gizarte-interakzioa. Nerbio-sistemaren heltze-prozesuari eta emozioen eta buruaren antolaketari lotutako bilakaera izaten dute eta horrek gizakiaren oinarrizko beharrak maila biologikoan zein psikoafektiboan asebetetzea eskatzen du.

Elementu horietan gerta daitekeen edozein asaldurak arriskua dakar berekin eta, zenbaitetan, gainera, jaio aurreko etapan, etapa perinatalean, jaiotza ostekoan edo garapen goiztiarrean asaldura ugari eragin dezake. Nazioartean onartutako estandarren arabera, etapa horiek 0 eta 6 urte artekoak dira.

Hitz gutxitan esanda, Dekretuak inplikaturako sistemetako profesionalen esku jartzen du Arreta



Goiztiarraren esparru teoriko-praktikoa eta maila autonomikoko, foru mailako eta udal mailako baliabideen antolaketa eta koordinazioa. Elkar-teak gustura hartu du esparru hori onartu izana, baina edonola ere, praktikan nola gauzatuko duten ikusteko zain dago.

ELKARTEANEK 2020KO ENPLEGUKO EUSKAL ESTRATEGIA PRESTATZEN PARTE HARTU DU ETA ENPLEGU ARRUNTEAN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK BARNERATZEKO LAGUNTZEN GABEZIA SALATU DU

Apirilaren 13an, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jardunaldia antolatu zuten eragile eta adituek 2020ko Enpleguko Euskal Estrategiaren gainean lan egin zezaten. Erakunde, elkarte, enpresa, sindikatu, kluster, hezkuntza-erakunde eta gizarte-erakundeetako ordezkariak eta uni-bertsitateko adituek (100 pertsona inguru) Word Cafe izeneko metodologiarekin elkarpenak egin zituzten (lankidetzako elkarrizketarako sareak sortzen ditu).

2020ko Enpleguko Euskal Estrategiaren helburua hurrengo urteotan Euskadiko enplegu-politikek bideratu beharko lituzketen ildoak zehaztea da, testuinguru ekonomiko, sozial, demografiko eta produktibo berriak “errezeta berriak” eskatzen dituela ustetik abiatuta. Estrategia berri

horren beste helburu bat da 2020ko Europako Estrategiarekin lerrokatzea. Horrek finkatzen ditu hazkunderako eta enplegurako Europar Batasunak garatu behar dituen lehentasuneko jarduerako ildoak eta helburuak; horiek guztiak azken ekonomia eta finantza arloko krisia gainditzeko ez ezik, gure hazkunde-ereduaren urritasunak arintzeko eta hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea lortzeko beharrek baldintzak sortzeko ere badira.

Elkartean osatzen dugunok, World Cafe ekimenean parte hartzeaz gain, Estrategiak enplegu arruntaren modalitatean desgaitasuna duten pertsonen integrazioarekin lotutako apustu eragingarria eta konpromisoa jaso ditzan gure kolektiboak ezarritako lehentasunak prestatu eta bidali ditugu. Beharrezkoa da enpresa arruntetan desgaitasuna duten pertsonen enplegua mantentzea eta kontratazioa bultzatzeko eta babesteko behar adinako laguntzak eta politikak bermatzea zein lanpostuak egokitzea. Bizitza independentea, parte-hartzea eta aukera-berdintasuna ahalbidetzeko oinarritzko baldintza da. Hala eta guztiz ere, Euskadin, babestutako enpleguaren modalitatea da enplegu-modalitate orokorra eta azken urteotan desoreka argia eta atzerakada ikusi dugu enplegu arruntan integratzeko sustapenaren kaltetan.

Izan ere, 2016an desgaitasuna duten pertsonen enpleguaren sustapena finantzatzeko Lanbidek martxoan onartu zituen ebazpenetan, beste behin, babestutako enpleguari emandako laguntzen babesaren eta enplegu arruntaren integrazioari emandako laguntzaren arteko desoreka handia ikus daiteke:

- ENPLEGU ZENTRO BEREZIETARA BIDERATUTAKO 34.000.000 €-KO AURREKONTUARI KONTRAJARRITA (30.000.000 € enplegu-zentro berezi horietan desgaitasuna duten langileak mantentzeko eta 4.000.000 € zentro horietan jarduera profesionalari laguntza emateko unitateak eratzeke), 500.000 €-KO AURREKONTUA BAKARRIK BIDERATZEN DA ENPRESA ARRUNTETAN DESGAITASUNA DUTEN LANGILEEI KONTRATU FINKOA EGITEKO.

- AURREKO URTEAREKIN ALDERATUTA, 2016AN, ENPLEGU ZENTRO BEREZIETARA BIDERATUTAKO AURREKONTUA % 12 (3.500.000 €) HANDITU DA (2015ean, enplegu-zentro berezietara 30,5 milioi euro bideratu zen -26,5 mantentzera eta 4 babes-unitateetara), BAINA EZ DA ALDAKETARRIK IZAN ENPLEGU ARRUNTEAN INTEGRATZERA BIDERATUTAKOAN.

Elkarteanek idatzia prestatu eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari bidali dio egoera horrekiko desadostasuna adierazteko. Desgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioarako modalitate bakar gisa babestutako enpleguaren alde egindako apustu sistematiko hori salatu nahi dugu, Desgaitasuna duten Pertsonen buruz Nazio Batuen Konbentzioak onartutako 27. artikulua izanarri kontrajarrita.

ELKARTEAN EK TURISMO LEGEAREN PROIEKTUAREKIN LOTUTAKO IRITZIA AGERTU ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGIN DITU

Euskadiko Turismo Legea prestatzeko prozesuaren baitan, Elkarteaneko kideok aurkeztutako zirriborroarekiko gure iritzia eta ekarpenak bidali dizkiegu Legebiltzarreko taldeei. Zehazki, artikuluetan esparru horretan pertsona guztientzako irisgarritasun unibertsaleko eta diseinuko baldintza guztien bermea xertatu beharko litzatekeela azpimarratu dugu.

Desgaitasuna dugun pertsonok turismo-jardueraz gozatzeko eskubidea bermatuta izan beharko genuke aukera-berdintasuneko eta irisgarritasun unibertsaleko baldintzetan. Hala bakarrik gauza

daiteke bizitza independentea, barneratzailea eta komunitateko bizitzako esparru guztietan partaidetza biltzen dituen eskubidea.



ELKARTEAN EK GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK ALDATZEKO DEKRETUAREKIN LOTUTAKO IRTITIA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ESKAINI DITU

Elkarteanek Gizarte Larrialdietarako Laguntzei (GLL) buruzko dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzko informazio publikoaren izapidetzean hartu du parte bere iritzia eta ekarpenak emanda.

GLLak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio ekonomikoak dira eta gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo arintzeko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adinako baliabideak ez dituzten pertsonen zuzenduta daude.

Edozein pertsonak eta, zehazki, desgaitasuna duten pertsonen komunitatean parte-hartze aktiboa

eta bizitza independentea gara dezaten (Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko 19. artikuluan eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorreko Testu Bategina onartzen duen 1/2013 ELDan aurrez ikusitakoaren arabera) ezinbesteko baldintzetako bat da pertsona bakoitzak bere oinarritzko beharrak estali ahal izateko baliabide eta prestazio guztiak (bermatutako gutxieneko baliabi-deak) izatea.

Horregatik, pertsonen oinarritzko beharrak estalita dituztela bermatzeko behar adinako prestazioak bermatu behar dira desgaitasunak pertsonentzat eta familientzat eragiten duen gainkostua kontuan hartzen duten diskriminazio positiboko neurriak jasota. Gainera, esparru horren baitan, ez ditugu ahaztu behar desgaitasunak pertsonentzat eta familientzat izan ohi dituen gainkostuak, eta horiek kontuan hartu behar dira.

Beste hainbat gairen artean, Elkarteanek GLLak, DSBEa eta etxebizitzaren alokairurako laguntza ekonomikoa bezalaxe, horien onuradunak diren eskubide subjektibo gisa espresuki aitortzea eskatzen du; izan ere, bazterkeria-egoerak estaltzera eta prebenitzera bideratutako gutxienekoen prestazioak dira eta, horrenbestez, horien oinarri den helburu bera betetzen dute. Horren ondorioz, horietarako sarbidea ez litzateke aurrekontu mailako eskuragarritasunaren arabera mugatuta egongo; horietara sartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat bermatuta dagoen eta eska dakiekeen eskubidea izan beharko luke.

ELKARTEAN EK ETXEBIZITZA DUINAREN ETA EGOKIAREN LEGEZKO OKUPAZIORA SARBIDEA IZATEKO ESKUBIDE SUBJEKTIBOARI BURUZKO DEKRETUAREKIN LOTUTAKO IRITZIA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK ESKAINI DITU

Desgaitasuna duen pertsona askok ez du behar adinako baliabiderik bizitza independentea garatu ahal izateko etxebizitza irisgarria sarbidea izateko: desgaitasunaren gainkostuak, enplegu arruntera sarbidea izateko zailtasunak eta kasu askotan nahikoa ez diren prestazio ekonomikoak edo pentsioak izateak beren familiaren etxetik atera edo bizimodu independentea garatu ahal izateko non eta norekin bizi aukeratu ahal izateko zailtasuna edo ezintasuna eragiten dute.

Etxebizitzari buruzko 2015eko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak (7. artikulua) xedatutakoaren arabera, "Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan administrazioko auzotasuna duten pertsona guztiak dute etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko eskubidea".

Eskubide hori zehaztu ahal izateko, Lege horren garapeneko ekimen gisa, etxebizitza duinaren eta egokiaren legezko okupaziora sarbidea izateko eskubide subjektiboari buruzko Dekretua prestatzen ari dira.

Elkartean osatzen dugunok, aurkeztutako dekretuaren zirriborroaren inguruko iritzia eta hobetzeko proposamenak aurkeztu ditugu. Horren guztiaren helburua pertsona guztiak (besteak beste, desgaitasuna dutenek) beren bizitza

independentea garatu ahal dezaten etxebizitza duinera, egokira eta irisgarria sarbidea izateko eskubidea bermatuta izatea litzateke.

Beste hainbat gairen artean, desgaitasuna duten pertsonen kasuan, etxebizitza irisgarriako sarbideak (etxebizitzarenak zein hura kokatuta da goen ingurunearenak) eta komunitateko baliabideetarako sarbide erraza izateak eragiten duten gainkostua kontuan hartzea planteatu dugu.



ELKARTEAN EK EUSKADIN ENPLEGURAKO LANBIDE HEZIKETA ARAUTZEN DUEN DEKRETUARI BURUZKO IRITZIA ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK EGIN DITU

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak irekitako entzunaldi-izapidetzearen baitan, Elkarteanek Euskadiko enplegurako lanbide-heziketa arautuko duen dekretuarekin lotutako iritzia eta ekarpenak aurkeztu ditu.

Dekretu horrek arautuko ditu EAeko enplegurako lanbide-heziketa (langileena, lanean ari direnena zein langabezian daudenena), helburuak, printzipioak eta plangintzako, programazioko, kudeaketako eta hori emateko faseak. Prestakuntza-jardueraren ebaluazioa, jarraipena eta kontrola ere bilduko ditu.

Esparru horren baitan, Elkarteanek posizionamendu-elementu hauek planteatu ditu:

- Irmo babestu behar da desgaitasuna duten pertsonen zein gainerako herritarren prestakuntza eta kualifikazio profesionala:

ELKARTEANen ustez, helburua ez da prestakuntza-espezifiko eta bereiztua garatzea desgaitasuna dutenentzat; izan ere, prestakuntza-ekintzak biztanleria osoarentzat bideratu beharko lirateke, bereizkeriarik eta desberdintzerik egin gabe.

Hori dela eta, beharrezko neurri eta egokitzapen guztiak hartu eta irisgarritasun unibertsaleko baldintza guztiak bermatu beharko lirateke desgaitasuna duten pertsona guztiek izan dezaten prestakuntza-ekintzetarako sarbidea, gainerako herritarrek duten aukera-berdintasunaren arabera.

Horrekin lotuta, ordea, beharrezkoa litzateke ekintza-positiboko neurriak gehitzea desgaitasuna duten pertsonen alderdi hauen inguruan dituzten lan-munduratzeko zailtasun bereziak kontuan izanda.

- Prestakuntzako plazak erreserbatzea desgaitasuna duten pertsonentzat biztanleria osoarentzako prestakuntza-ekintza guztietan.
- Beharrezko egokitzapen guztiak (curriculum-egokitzapenak, ordutegiak, ikasgelan eta handik kanpo laguntza pertsonalak eta teknikoak praktiken kasuan eta abar) egitea desgaitasuna dutenek biztanleria osoarentzako planteatutako prestakuntza-ekintza guztietara sarbidea izan eta horiek jaso ditzaten.
- Prestakuntza-zentroak akreditatzeko/kontratatze baldintzen artean honako hau jasotzea: enpresek lanekoak ez diren praktikak

egiteko desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak bermatuko dituztela dioten akordioak sinatuta dituztela egiaztatzea.

- Lanekoak ez diren praktiketarako lanpostu-egokitzapenak egin dituzaten enpresei bide-ratutako laguntzak.
- Esparru horrekin lotuta, beste proposamen batzuk ere planteatu dira:
 - Prestakuntza-zentroetan irisgarritasun-ara-zorik ez dagoela bermatzea. Eta, bereziki, prestakuntza pribatuko kasuetan.
 - Prestakuntza oso praktikoko formatuak ga-ratzea enpresan egindako praktikekin uztar-tuta. Postuaren egokitzapena ahalbidetzeko laguntza-ildoak aztertzea.
 - Pertsonen motibazioa, autoestimua eta ahal-duntzea lantzea.
 - Lanbide Heziketako (LH) aukerak aktiba-tzea lanpostuak egokitzeko nitxo gisa: pos-tuen egokitzapenaren inguruko ikerketa eta berrikuntza bultzatzea, teknologiak aprobe-txatzea eta abar.
 - Lanbidek kudeatutako prestakuntzan iris-garritasun unibertsaleko baldintza guztiak bermatu behar dira (zentroetan eta laguntza, material, instalazio... guztietan).
 - Desgaitasuna dutenentzako lanbide-hezike-tako plazak (biztanleria osoari zuzendutako prestakuntza-ekintza guztietan) erreserba-tzea eta erreserba-kuota hori betetzea aurrez ikusi dela bermatzea.

ELKARTEAN EK ERAKUNDEETAKO MAHAietan, FOROetan eta JARDUNALDIetan IZANDAKO PARTAIDETZA

ELKARTEANen lehenetsunaren artean dago politika, erakunde eta herritar arloko in-tzidentzia, desgaitasun fisikoa eta/edo or-ganikoa duten Euskadiko pertsonen eskubideak eta interesak defendatuta.

Horregatik, presentzia eta parte-hartze esangu-ratsua mantendu du erakunde mailan (adminis-trazio publikoek bultzatutako mahai, batzorde eta kontseilu ugariak deitutako bileretan) zein Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen Elkarte Mugimenduan (plataforma eta erakunde ugarietan).

Zehatzago esanda, 2016ko lehen seihilekoan, parte-hartze aktiboa garatu du arlo hauetan:

- Elkarrizketa Zibilaren Mahaia.
- EAEko administrazio publikoen batzordeak eta kontseiluak haien eskuduntza maila uga-rietan. Besteak beste, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua, Gizarte Inklusiorako Eus-kal Kontseilua, Familiaren Euskal Kontseilua eta Hirugarren Sektore Sanitarioko Erakun-deen Batzorde Estrategikoa.
- Edekek eta Sareen Sareak bultzatutako batzor-de eta foroak.
- Herritarren eskubideak, berdintasuna, gizarte-ratzea eta pertsona guztien irisgarritasun uni-bertsala defendatzeko zein euskal herritarren eskubideen, berdintasunaren eta justizia so-zialaren aldeko herritarren plataformak, beste foro batzuk eta jardunaldiak.

IRISGARRITASUNA: EGINAREN EGINEZ ELKARTEAK OZTOPOAK KENTZEKO ETA BAIMENAK BALIOGABETZEKO ESKATZEN DU

Elkarateak ingurune irisgarria lortzeko borrokaekin jarraitzen du. Bertan, eraikinek gure taldearen irisgarritasuna bermatzen dute modu autonomoan eta barnealdetik ibil gaitzeko inolako arazorik gabe.

Publikoki salatu dugu establezimendu berrien irisgarritasun falta, hiriaren erdian, San Prudentzio kalean zabaldu den gimnasioaren kasua esaterako. Bestetik, bazkide bati babesa eman diogu zinemetan erreserbatutako lekua inork eseri ez nahi duen lekua izan ez dadin, hau da, lehen ilara izan ez dadin, Yelmo zinemei alternatibaren bat eskatzeko antolatu duen sinadura bilketarekin.

Dendaraba Merkataritza Gunean, bainugelen erreforman, egindako lanen kontra Udalaren aurrean erregistratutako salaketa bat ere aurkeztu da; izan ere, aipatutako lanak Irisgarritasun Legea bete gabe egin dira. Era berean, Mateo Moraza kalean Arkupe taberna-jatetxearen erreforman egindako lana salatzeaz gain, baimena baliogabetzeko eskatu da; izan ere, sarreran koska bat utzita egin da erreforma. Horrez gain, Medical Ópticaren denda berria ere zabaldu dute Postas kalean eta koska batekin zabaldu dute, mailarik gabekoa jartzeko nahikoa leku zutenean.

Bestalde, Jabetza Erregistroetara eta Merkataritza Erregistroetara jo dugu, Gaztela kalean daudenetara, eta instalazioak herritar guztiertzako egokitzera estutu ditugu; izan ere, sarreran, beharagune okerra duen koska bat dago, mailagai-

rik gabe, ate pisutsuekin eta abar. Hori dela eta, ez da irisgarria.

Komunikabideek irisgarritasunarekin lotutako hainbat salaketaren berri eman dute, Europa Gizarte Etxearen sarrerako ateei buruz tokiko prentsan argitaratutakoa, esaterako, edo sare sozialetakoa, ibilgailuak aparkatzeko orduan pertsonak arauak ez betetzeak dituen ondorioen erakusgarria denak.

Duela gutxi, eta hauteskunde-kanpainen gaudela, PSE-EEK Prado kalean zabaldu duen hauteskunde-bulegoaren irisgarritasun-falta publikoki salatu dugu eta hauteskunde-prozesuari dagokionez irisgarritasun-bermearen gabeziak kezkatzen gaitu; izan ere, konturatu gara aurreko hauteskundeetan zailtasunak izan ditugula boto-txartelak hartzeko kabinetara iristeko.

Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betetzeari dagokionez, Eginaren Eginez elkarrearen aldekoa, eta Irisgarritasun Legea urratzen duelako Gasteizko tranbiaren markesinak erreformatzea derrigortzen duena, egokitzapen-lanak igandean hasi ziren, maiatzaren 29an, gauean; izan ere, lanen zatirik handiena gauetz ari dira egiten. Nasa zentrala duten geltokien berregokitzapen-lanak hiru gaueko iraupena dute eta alboko ontziratzea duten geltokietako erreformek bost gau. Hogeita hiru dira esku hartu beharreko markesinak.

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi duen moduan, egindako lanekin lehengo oinak kendu dituzte; izan ere, horiek egungo markesinetako 1,80 metroko pasabidea eragozten zuten eta paldoan errematea jarri diote. Egungoaren baldosa berbera erabili dutela jakinarazi dute eta lurzorua amaituta utzi dute. Trameinsa enpresa izan da lanen esleitzaila.



EMAKUNDE EGINAREN EGINEZ IZASKUN LANDAIDA-REKIN, EMAKUNDEKO ZUZENDARIAREKIN, ELKARRIZKETATU DA

Emakundek Gasteizen duen egoitzan martxoaren 2an egindako topaketan, Eginaren Eginenez elkarteko bozeramaileek genero arloan garatutako elkartearen laneko ildoak aurkeztu dituzte.

Aukera-parekatzearen alde egiten dugun lana eta, emakume-izaera eta desgaitu-izaera kontuan hartuta, desgaitasun fisikoa duten emakumeen genero-ikuspegia nola lantzen dugun erakutsi diogu.

Era berean, Elkarateak azken urteotan egindako kontzientziazio-kanpainak (BIKOITZA, NO SOMOS INVISIBLES) eta gai horren inguruko ekimen ugariak aurkeztu dizkiote: Diskriminazio Anizkoitzari Buruzko Kongresua, hitzaldien aurkezpena jardunaldi espezializatuetan, elkarlana unibertsitate-mundurekin, bideoen eta ikus-entzunezko materialen proiektzioa, eta desgaitasuna duten emakumeen kolektiboekin sarean egiten den lana (Elkartean eta Gasteizko Plataforma Feministarekin).

Bestalde, Izaskun Landaidak emakumeen arloan bere erakundeak abian jartzen dituen laguntza-ildoak mahaigaineratu eta onartu dituzten berdintasun-plan ugarien irismena aurkeztu zituen. Azkenari, VI. Planari, dagokionez, Elkarateak desgaitasuna duten emakumeen errealitatea lantzeko garaian detektatutako gabeziak bistaratu zituen. Horren baitan, Planaren ardatz nagusietan desgaitasunaren aldagaiak zehaztu eta barneratu behar harko litzatekeela aldarrikatu zuen.

Zuzendaria harko eta interesatuta agertu zen

Elkarateak egiten duen lanari dagokionez. Gainera, bere eskuduntza esparruan dauden berdintasun-batzordeetan desgaitasuna duten emakumeen partaidetzari ateak ireki zizkion. Hori guztia errealitate bihurtuko dela espero dugu.



Elkarteko bozeramaileak Emakundeko zuzendariarekin.

LOGELA EGOKITUAK TXAGORRITXUN ETA OSPITALEAREN BIRMOLDAKETA

Eginaren Eginenez OSAKIDETZArekin elkarlanean ari da (Araba ESI, *Araba Erakunde Sanitario Integratua*) herritar guztientzako osasun-instalazioak hobetzeko eta horien aurrerapena lortzeko, desgaitasun fisikoa / aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia pertsonala bermatuta.

Hirugarren Sektore soziosanitarioko erakundeentzat Osasun Sailak antolatutako partaidetza-organoetan gure ordezkariak izandako parte-hartzeari esker, ospitaleratze-prozesuetan eta ospitaletako, kontsultetako, zerbitzu espezializatuak eta abarretako sail ugarietan irisgarritasuneko gabeziak direla eta topatzen ditugun zailtasunak planteatu ahal izan dizkiegu.



Osakidetzak aldarrikapena jaso eta Elkarteari Txagorritxurako logela egokituaren proiektua bidali zion. Elkarateak proiektua aztertu (komunean irisgarritasuneko gabezia batzuk detektatu zituen) eta gainbegiratze-lana egiteko eskatu zien irisgarritasunean espezialista den arkitekto bati eta sabaiko garabien bidez autonomia pertsonaleko sistema patentatuta duen ingeniari bati. Horren arabera, irisgarritasun integrala bermatzen duen proposamena prestatu eta Zuzendaritza Ekonomikoari, Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzari eta Osasun arloko sailburuari bidali zien.

Osakidetzak proposamena aztertu eta **batzordea** eratu du. Horren bidez ezagutu ditugu AUoko Zentro Oftalmologiko berrian eta Kirurgia Handi Anbulatorioko Zerbitzuan egin dituzten azken erreformak. Horrez gain, berrikuntzak egin dituzte Areto Zuria edo Areto Garbia izenekoan (kutsadura maila baxuak lortzeko bereziki diseinatutako gela da).

Era berean, Santiagon AUOren Errehabilitazio Zerbitzu berria egokitzeko proiektua idatzi dutela jakinarazi dute. Zerbitzu hori beheko solairuan jarriko lukete irisgarritasuna hobetzeko (gaur egun, bigarren solairuan dago). Azpiegitura horren kasuan, lagungarria izango da Lakua-bizkarrako osasun-zentroa. Horrek ere handitu egingo du errehabilitazio-zerbitzua hidroterapiako eremu txiki batekin.

Egokitutako logelei dagokienez, solairu bakoitzean bana jartzea aurrez ikusi dute eta Traumatologiakoa izango da lehenengoa. Aipatutako batzordearen baitan, eta hileroko bisiten bidez, gai horren inguruan emandako aurrerapenak ezagutzen joango gara.

I WORLD KAFEA ARABA ESI 2016

EGINAREN EGINEZ ELKARTEAK OSAKIDETZA 2016REN PLAN ESTRATEGIKOKO ILDOETAN PARTE HARTU ZUEN OSASUN ARLOAN ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN BEHARRAK BISTARATUZ

Arabako Erakunde Sanitario Integratuak (ESI) otsailean World Kafea izeneko antolatu zuen Lakua-Arriagako osasun-zentroan. Erakunde Sanitario Integratua hedatzeko eta hazteko balio duten ideien, ezagutzen eta esperientzien inguruko eztabaida egitera bideratutako ekimena da.

Osasun arloko, EHuko, Gasteizko Udaleko, desgaitasuna duten pertsonen elkarreetako eta beste gizarte arlo batzuetako 150 pertsona inguruk hartu genuen parte topaketa horretan. **Arabako ESIren 2016ko Kudeaketa Planari** ikuspegi positibo eta eraikitzailetik forma emateko



asmoa du topaketa horrek eta bertan ikuspegiak partekatzeko eta ideiak sortzeko pentsatuta dago.

World Kafea izeneko teknikaren bidez, parte-hartzaileok iritziak partekatu genituen sei saiotan. Horietan, txandakatzeko bost mahai antolatu ziren, **Erakunde Sanitario Integratuaren Kudeaketa Plana prestatzea xede duten ildo estrategikoak** garatu ahal izateko:

- Pertsonak: osasun-sistemaren ardatz nagusiak.
- Erantzun integratua erronka berriei: kronikotasuna, zahartzea eta mendekotasuna.
- Sistemaren iraunkortasuna bermatzea.
- Profesionalak.
- Berrikuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

Mahaietan elkarrizketa errazte aldera, proposamen ugariak, jasotako ideiak eta World Kafearen dinamikaren balorazioa kartoi mehetan bildu dituzte lan egiteko garaian. Hori guztia paneletan jarri dute gero horman ikusgai jarri ahal izateko. Hala, talde ugarietako bozeramaileek saioetan defendatu dituzte.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO BANAKAKO LAGUNTZEN DEIALDI BERRIA

Etxebizitzetan oztopo arkitektonikoak kentzeko obretarako eta gurpildun aulkien, betaurrekoen eta audiofonoen (besteak beste) erosketarako diru-laguntzak emango dira.

Maiatzaren 20an argitaratu dute Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak abian jarritako eta desgaitasun-egoera aitortuta duten pertsonen zuzendutako banakako laguntzen deialdi publikoa

(ALHAO, 57. zk., 2016ko maiatzak 20).

Eskaerak aurkezteko epea ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da; hau da, maiatzaren 21ean, eta **2016ko irailaren 16ra arte** egongo da irekita. Deialdi horretarako finantzaketaren helburu izango dira 2015eko irailaren 5a eta aurtengo urriaren 31 arte erositako edo egindako laguntza guztiak.

Banakako laguntzak emateko 2016rako deialdiak hasiera batean **443.871 euroko** zenbatekoa du.

Deialdi honetan sartutako **laguntzen katalogoak** honako hauek biltzen ditu:

- **Ohiko etxebizitzaren irisgarritasunerako laguntzak** (oztopoak kentzea, etxebizitzaren egokitzapen funtzionala...).
- **Etxeko jarduerak egiten laguntzeko produktuak** (jaten, edaten, garbitzen... laguntzeko produktuak).
- **Zaintza eta babes pertsonalean laguntzeko produktuak** (janzten, garbitzen, pedikura egiten, ilea zaintzen... laguntzeko).
- **Komunikazioan eta informazioan laguntzeko produktuak** (betaurrekoak, audiofonoak, telefono bereziak, deien ohartarazpena eta alarma, likornioak, sakagailuak, orri-pasagailuak, Braille sisteman idazteko ekipoa, ordenagailuak...).
- **Mugikortasun pertsonalean laguntzeko produktuak eta lekualdatzeko gaitasuna handitzen duten laguntzak** (eskuz eragiteko aulki gurpildunak eta elektrikoak, ibilgailuak egokitzea, arrapalak edo plataforma jasotzaileak, garabiak, aulki ergonomikoa, ohe artikulatua, oherako eskudelak, ohea altxatzeko aukerak...).
- **Garapen-nahasmenduak** dituzten edo hori jasateko arriskuan dauden haurrentzako **laguntza espezializatua**: arreta goiztiarra (fisioterapia, logopedia eta erabateko estimulazioa, garraioa...).
- **Bestelako laguntza bereziak eta osagarriak.**

Aurreko urteetan ez bezala, eskaerak aurkeztu ahal izapidetu eta ebatziko dituzte, epe jakin


batzuk bete arte itxaron gabe. Hemendik aurrera, espediente bakoitzaren ebazpena GOFeko zuzendaritzak sinatu ahal izango du eta ez da beharrezkoa izango erakunde horretako Administrazio Kontseiluak oniritzia ematea. Horrek jaso beharrekoak bizkorrago ordaintzea ahalbidetuko duela espero dugu.

Bestalde, aurren, laguntzak onuradun bakoitzari dagokion diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoaren arabera emango dira. Aurreko ekitaldietan, eskatzaile bakoitzari ordaindutako gehieneko zenbatekoa diru-laguntzaren % 80koa zen. Gainerako % 20a kobratzea aurrekontua eskuragari izatearen mende geratzen zen. 2016ko ekitaldirako, aldiz, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 100 hasieratik ordaintzea aurrez ikusi da; izan ere, beharrezkotzat joz gero, deialdi honetako aurrekontua handitzeko aukera jaso dute.

Azkenik, garapen-nahasmendua duten edo hori jasateko arriskuan dauden haurrei zuzendutako laguntza espezializatuarekin lotutako laguntzetan berrikuntza bat txertatu dute eta, zehatzago esanda, arreta goiztiarreko zerbitzuetan: fisioterapiako, logopediako eta erabateko estimulazioko zerbitzuak. Hemendik aurrera, lurraldeko udalerrietako familiei bideratutako muga ekonomikoaren aplikazioa ezabatuko da. Aplikazio hori zela eta, Gasteizen bizi diren arreta goiztiarreko adingabe onuradunekiko diskriminazioa gertatzen zen.

Hemen duzu deialdira joateko esteka:

https://www.araba.eus/BOTHA/Boletines/2016/057/2016_057_01677_E.pdf



PARTE HARTZEA

Eginaren Eginez ekimenak herritarren parte-hartzearekin konprometuta eta aktibo jarraitzen du. Aurren, herritarren partaidetza-organoak aldatzeko zirriborroaren proposamenak aurkeztu dituzte Udalak dinamizatutako partaidetza-prozesuaren baitan.

Elkarteak berriro aipatu du Kontseiluen izaera loteslea modu operatiboan txertatzeko beharra dagoela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzeko eskatuta.

Gainera, urteko aurrekontu-proiektuan herritarren parte-hartzea txertatzeko eskatu dugu, gai jakin batzuetarako aurrekontuen zatiari buruzko erabakiak hartzeko aukera bermatuta.

Garrantzitsua iruditzen zaigu eskuragarri ditugun baliabide guztien bidez iritzi publikoari Kontseiluetan hartzen diren akordioei eta egindako jardueri zein lortutako aurrerapenei buruzko informazioa ematea.

Aurreko ereduari eta lehendik dauden kontseiluei dagokienez, Elkarteak uste du Irisgarritasuneko eta Berdintasuneko kontseiluak garrantzitsuak direla zeharkakoak izan behar dutelako. Irisgarritasuna eta Berdintasuna bermatzeak udal-politika, sail eta organo guztiak barneratzen ditu.



Partaidetza-prozesua otsailean egin ondoren (udaleko aurreko partaidetza-organoak berrikusi ziren), martxoan jarri ziren abian partaidetzako gune berriak: **ELKARGUNEAK**.

Eginaren Eginez hurrengo ELKARGUNEetako kidea da: **Elkarbizitza eta Aniztasuna, Osasuna eta Kontsumoa, Ingurumena, Berdintasuna eta Gazteria**.


Haietako bakoitzean egindako lehen saioetan, partaidetzarako gune berria eta haren funtzionamenduko oinarriko arauak aurkeztu dira, eta laneko dinamikak aplikatu dira jarraian gune horretatik lantzea eta lehenetsiak finkatzea nahi dugun beharrak/gaiak identifikatzeko, eta horiek lantzeko edo bideratzeko moduak zehazteko.

Bestalde, Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren mende dagoen **Desgaitasuneko Sektoreko Kontseiluan** ere hartu dugu parte. Saioa apirilaren 18an egin zuen. Elkarteak honako hauen inguruko hainbat gai aurkeztu zuen: desgaitasunaren balorazioa (bat-batean gertatutako desgaitasunaren aurrean behin-behineko balorazioak egitea gorabehera horietarako aurrez ikusitako prestazioetarako eta eskubideetarako sarbidea arindu ahal izateko), Araban lan-mahaia sortzeko beharra desgaitasun fisikoa/aniztasun funtzionala duten pertsonen nola bizi nahi duten hautatu ahal izateko bizimodu independentearen eredia ezartzeko, bizitza-ereduren bat

hautatu ahal izateko (autonomia, independentea, lagundutakoa eta abar), eta laguntza teknikoak ere autonomia pertsonal horren baitan sartzea laguntzen deialdi arinaren bidez eta abar.

Azkenik, aipatu beharrekoa da Elkarteak parte hartu duela martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, eta apirilaren 9an, Indarkerien aurkako Manifestazio Nazionalean, antolatutako ekitaldietan. Aipatutakoak Arabako **Plataforma Feminista** izenekoak antolatu zituen, desgaitasun fisikoa duten emakumeak bistaratzeko asmoz. Arabako Foru Aldundiko **Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planean** ere esku hartu dugu III. Foru Planaren ebaluazioko saioetara eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana prestatzeko prozesura joanda.

Elkartea presente egon da apirilaren 20an, 21ean eta 22an Logroñon egindako **Gizarte Laneko Nazioarteko Kongresuan** eta apirilaren 20an eta 22ean Bilbon egindako **Gaixotasun Arraroei buruzko Hezkuntza arloko Nazioarteko Kongresuan**. Era berean, **EGIBIDE-MOLINUEVO**ko ikasleekin batera **“Hesiak saltatu”** izeneko III. jardunaldietako kontzientziazio-astean hartu genuen parte maiatzaren 9tik 13ra bitartean. Ekimena Goi Mailako Gizarte Integrazio-ko ikasleek dinamizatu zuten eta desgaitasuna duten pertsonen errealitateak ikusgai jartzea izan zuen xede.



2017KO AURREKONTURAKO PROPOSAMENAK GASTEIZ HOBETUZ

Eginaren Eginez elkarteak “Gasteiz hobetuz” ekimenerako 3 proposamen aurkeztu ditu. Programa horrek hiru milioi euro bideratzen ditu herritarrek aurkeztutako eta bozkatutako proposamenak garatzeko.


Udalak jakinarazi duenez, 169 proposamen aurkeztu dituzte; horietako 130 online aurkeztu dituzte, eta gainerakoak herritarrei Arreta eta Informazioa emateko bulegoetan. Proposamen guztiak udalerrian bizi diren pertsonen egin dituzte (horietako hiru landatar eremuan) eta, batez ere, toki hauetatik iritsitako proposamenak egon dira: Lakua-Sasomenditik (% 19), Zabalgunetik (% 18) eta Aranbizkarra-Salburuatik (% 13).

Gaiei dagokienez, batez ere zirkulazioko eta mugikortasuneko, eta ingurumeneko proposamenak egon dira (% 18 bietan), eta ondoren azpiegiturak (% 16) eta bide publikoa (% 15) aipatu behar dira.

Eginaren Eginez elkarteak azken egunean, ekainaren 3an, erregistratu zituen Judimendiko Herritarren Arretarako Bulegoan:

- Egokitutako jolasak hiriko parke eta haurrentzako jolaserako eremu guztietan.
- Scooter-ak edo aulki elektrikoak eraztun berderako eta atseden hartzeko eserlekuak jartzea.
- Herritar guztientzat irisgarriak diren eta bide publikoan instalatzen diren agertokiak egokitzea edo erostea.

Hemendik aurrera, eta uztailaren 15era arte, udal-sail ugarietako langile teknikoek aztertuko dute proposamen bakoitzaren bideragarritasuna. Interes orokorreko kalifikazio izendapena jaso eta udal-eskumenekoak izan beharko du, aurrez ikusitako aurrekontua ezingo dute gainditu eta egiteko modukoak izan beharko lukete. Hortik aurrera, irailean, Udalak proiektuak webgunearen, komunikabideen eta erakusketen bidez hedatuko ditu proiektuak. Bozketa irailaren 26a eta urriaren 9a artean egingo da. Herritarrek gus-tukoaren dituzten hiru proiektuen artean bozkatu ahal izango dute.



BIZKAIKO GINEKOLOGIA- ETA UGALKETA-ARRETA SARE PUBLIKOKO OSASUN-ZENTROEI ETA OSPITALEEI EGINDAKO DIAGNOSTIKOAREN AZTERKETA

“Desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten Bizkaiko emakumeen sexu-osasunaren eta ugalketaren arreta-eskubidean diskriminaziorik eza errespetatzearen alde”.

Epigrafe horren baitan, FEKOOREko Berdintasunaren aldeko Emakumearen Batzordeak Bizkaiko ginekologia- eta ugalketa-arretako Sare Publikoko osasun-zentro eta ospitale guztien diagnostiko zehatza egin du lurralde historiko horretan desgaitasuna duten emakumeei eskaintzen zaien osasun-arretaren irisgarritasuna aztertu ahal izateko.

Azterketa horren ondorioak Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari aurkeztu dizkiote eta 2008an Batzordeak egindako azterketaren informazioa eguneratu du ebaluatutako zentro eta ospitaleen kopurua sare publiko osora zabaldua (kontsultategia, osasun-zentroak, anbulatorioak eta ospitaleak).

Hala, galdera-sorta baten eta bisita presentzialen bidez 160 zentro baino gehiago aztertu dituzte eraikinetarako eta kontsultetarako irisgarritasuna, zein miaketako eta diagnostikoko ekipoen egokitzapena ebaluatu ahal izateko besteak beste. Azterketaren helburuak laguntza ginekologikorako sarbidearen bilakaera aldarrikatzea, eta emakumei informazioa gerturatu ahal izateko Baliabideen Gida prestatzea dira.

Azterketaren ondorio orokorren artean, honako hau nabarmen dezakegu: “osasun-arretak, batez ere publikoak, desgaitasuna duten emakumeen

behar espezifikoak kontuan izan beharko lituzke zerbitzua egokitzeko eta emakume guztiek aukera-berdintasunean jasotzeko”.


Eraikinak eta kontsultak sarrera nagusiari dagokionez irisgarriak diren arren, haietako gehienak ez daude egokituta mugigarritasun murriztua duten emakumei kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko moduan: ez dute ohatila hidraulikorik, transferentzia-garabirik (ez dago halakorik aztertutako zentroetako bakar batean ere) eta transferentzietan oinarritako prestakuntza duen langilerik.

Horrekin lotuta, oso esanguratsua da egokitutako mamografoen gabezia. Hori dela eta, mugigarritasun murriztua duten emakumeek ez dute bularreko minbizia prebenitzeko horren beharrezkoa den proba hori izateko aukerarik. Zentroetan erabilgarri dauden komun egokitu gehienak ez daude ginekologiako kontsultetatik gertu. Gabezia horiek guztiak ez dira inola ere lagungarriak mugigarritasun murriztua duten emakumeek ohiko azterketak egitera joateko garaian, eta haietako askok azterketa horiek saihesten dituzte.

Azterketak ondorioztatutakoaren arabera, osasun-sistemako protokolo medikoak, azpiegiturak eta baliabideak desgaitasuna duten emakumeek bizi dituzten egoera ugarietara eta osasun-arretako behar espezifikoetara egokitu beharko lirateke.

FEKOOREK GARELLANOKO GELTOKI BERRIKO IRISGARRITASUNA AZTERTU DU

FEKOOREk Bilboko Udalera jo du Garellanoko autobusen geltoki intermodal berriko eraikuntza-proiektuan aurrez ikusitako irisgarritasun-planak ebaluatzeko eta, dagokionean, obrei ekin aurretik, hobekuntzako proposamenak egiteko.



Garellanoko geltoki intermodalaren proiektuak lurpeko geltokia, 500 aparkaleku, 7.000 metro koadroko plaza eta erabilera tertziarioko eraikin bat eraikitzea aurrez ikusi du. Bilboko Udaleko gobernu-batzarrak proiektua ABEEE honi esleitu dio: Construcciones Amenabar - Viuda de Sainz.

Termibusen “azken belaunaldiko” geltoki berria 2018. urtearen hasieran egongo da funtzionamenduan. Martxan jarri aurretik, lanak egin ahal izateko beharrezkoa izango da 2016ko bigarren seihilekotik aurrera behin-behineko geltokia egokitzea (alboko orubean kokatuko dute). Gaur egungo terminala 2016ko bigarren hiruhilekoan geratuko da erabilerarik gabe eta orduan hasiko da behin-behineko geltokia funtzionatzen handik metro gutxira, Perez Galdos kalearen beste aldean dagoen eta Bilbao Ría 2000ren jabetzakoa den lursailean.

FEKOORek obraren jarraipena plano gainean egingo du, gai horren inguruko araudia betetzen dela eta proiektuak mugigarritasun mugatuko pertsoneri eta herritar guztiei, salbuespenik gabe, instalazio horiek erabiltzeko eta irisgarritasuneko eskubidea bermatzeko beharrezko neurriak uneoro betetzen dituela bermatze aldera.

Proiektu horren inguruko ekarpenak edo iradokizunak egin nahi badituzu, fekoore@fekoore.com helbide elektronikoa edo 94 405 36 66 telefonozenbakia erabil ditzaitezue.



FEKOOR ETXEBARRIKO LANTZADERAREKIN LOTUTAKO EPAIKETARA AGERTU DA

FEKOOR alderdi gisa aurkeztu da Galdakao - Etxebarri A3932 lineako Bizkai-bus metroko geltoki intermodaleko geralduraino iristea eragozteko Etxebarriko Udalak hartutako erabakia ezeztatu dezala eskatzeko abian jarritako administrazioarekiko auzian, Federazioak eskatutakoaren arabera.

Udalak xedatu duen linea horren gaur egungo geraldakua dela eta, zerbitzua erabiltzen dutenek 760 metroko distantzia egin behar dute geltoki intermodaleraino iristeko. Ibilbide horrek pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen du.

Irisgarritasuneko Euskal Kontseiluak emandako irizpenaren arabera ere, ibilbide horrek ez ditu irisgarritasuneko gutxieneko baldintzak betetzen.

Eremu horretan bizi diren batzuek arazoaren inguruan egindako kexak jaso ostean, FEKOORek irisgarritasun unibertsalerako eta partaidetza sozialerako duten eskubidea defendatzeko iniziatiba hartu zuen Udalarekin elkarlanean eta hobetzeko asmoz, irtenbidea topatu ahal izateko alternatibak eskainita.

Epaiketan deklaratzera deitutako pertsona guztiek onartu zuten zerbitzua erabiltzen dutenek egin beharreko 760 metroko egungo ibilbideak ez dituela betetzen irisgarritasuneko eta segurtasuneko gutxieneko baldintzak. Gainera, oro har herritarrek eta, bereziki, mugigarritasuneko arazoak dituzten pertsonen joan-etorriak egiteko oztopoa eta eragozpena dela aipatu zuten.

Alderdi hori argi utzi zuen Irisgarritasuneko Euskal Kontseiluaren txostenak. Erabiltzaileek erdiguneraino eta geltoki intermodaleraino egin behar duten 760 metroko ibilbide hori dela eta, geraldak horretan lineak eskaintzen duen zerbitzua ez zela irigarria aipatzen zuten.

Horrekin lotuta, Juan Carlos Solak, FEKOOREko bozeramaileak, honako hau deklaratu zuen: egoera hori “gure kolektiboarekiko konparaziozko bidegabekeria da; izan ere, gure segurtasuna arriskuan jartzen eta gure eskubideak urratzen dituen ibilbide ez-irisgarritik 700 metro baino gehiagoko distantzia egitera behartzen gaitu”.

FEKOOR BILBOKO METROAREKIN BILDU DA IRISGARRITASUNEN HOBKUNTZAK PROPOSATZEKO

FEKOOR Bilboko Metroko arduradunekin bildu da geltokietan eta bagoietan irisgarritasuna bermatzeko Bilboko hiri ingurukoak behar dituen hobekuntzak lantzeko.

Bileraren helburua mugigarritasun mugatuko pertsonen kolektiboak Metroko bezero gisa izaten dituen zailtasunak mahaigaineratzea eta irtenbide bizkorra eskatzen duten irisgarritasunaren hobekuntzara bideratutako proposamenak egitea zen.

Jakinazitatiko arazo nagusienetako bat mugigarritasun mugatua duten pertsonentzat erreserbatutako bagoien (konboiko lehenengoa eta azkena) zoruaren eta geltokiaren artean dagoen distantzia da. Izan ere, kurba duten geltokietan bereziki handia izaten da distantzia hori eta metro-unitateetara segurtasun-baldintzetan sartzea eragozten du horrek. Gaur egun, megafonia bidez ohartarazten dute hori nasaren eta metro-unitatearen arteko distantzia arriskutsua izan daitekeen geltokietan.

Giza Barik txartela eta mugigarritasun mugatua duten pertsonen laguntzaile pertsonalei doako sarbidea eta segurua errazteko beharra ere agerian utzi zuten. Gar egun, laguntza ematen dioten pertsonarekin batera doazenean, beren txartela

baliogabetu behar izaten dutenak profesionalak izaten dira.

Gainera, mugigarritasun mugatua duten pertsonen igogailuak erabiltzeko garaian lehentasuna dutela gogorarazi beharra dagoela planteatu zuten. Horretarako, informazio-kanpainak eta errotulazio berriak eta argiakoak prestatu beharko lirateke.

Horrekin lotuta, Bilboko Metroko talde teknikoari jakinarazi zioten bagoietan mugigarritasun mugatua duten pertsonentzat erreserbatutako eremu modu egokiagoan konfiguratu beharko litzatekeela oztopo batzuk kenduta: erdiko barra, eserlekuak...

Bilboko Metroko arduradunek proposamenak aztertzeko eta hobekuntzak bideragarriak diren aztertzeko konpromisoa hartu dute beren gain.

FEKOOREK GIZATRANS TXARTELAREN ONURADUN DIREN PERTSONEN KOLEKTIBOA HANDITZEKO ESKATU DU

FEKOOREk Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioako Sailari eta Garraio Partzuegoari Gizatrans garraio-txartelaren onuradun bihurtzeko pertsonen kolektiboa handitzeko proposamena bideratu die.

Gizatransek Bilbobus, Bizkaibus, Bilboko Metroa, Bilbo-Lezamarako eta Bilbo-Bermeo/Ermuarako Euskotren, tranbia eta funikularretarako hobari-irizpideak bateratu ditu hiru kolektibotarako: 65 urte baino gehiagokoak, % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak, eta

ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia duten pertsonak.

Fekoorren ustez, funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonen irisgarritasun-baldintza hobek ahalbidetzea eta, kolektibo horren baitan, komunitatean barneratzeko eta parte hartu ahal izateko desabantaila sozial handiagoa izan dezaketenei.

1999ko abenduaren 23ko 1971/99 Errege Dekretuko 3. eranskinaren arabera, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta duten pertsonen profila dago; **haien mugikortasun mugatuko egoera (A, B, C, 7 puntu edo gehiago)** eta baldintza hori direla eta, mugikortasun-arazorik gabeko pertsonen baina maizago erabili behar izaten dute garraio publiko irisgarria eta horrek garraio-gastua areagotzen du.

Arrazoi hori dela eta, Federazioak Bizkaiko Garraio Partzuergoko garraio-titulu komunak eta Barik Txartela arautzen dituen ordenantzako 5. artikulua aldatzeko eskatu du, onuradun gisa lehen araututa zeudenez gain, honako hauek ere jaso ditzan: % 33 baino gehiagoko desgaitasun fisikoa duten eta, aldi berean, 1999ko abenduaren 23ko 1971/99 Errege Dekretuko 3. eranskinaren araututakoaren arabera, garraio publikoak erabiltzeko zailtasunak dituzten baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

MANIFESTAZIOA URDUÑAN RENFEKO TRENETAN IRISGARRITASUNA ESKATZEKO

Bostehun lagun baino gehiago elkartu zen FEKOOREk deituta apirilaren 28an Urduñan egindako manifestazioan **Renfe, Accesibilidad Ya. Orain!** lelopean. Manifestazioaren helburua Maria Luisa Goikoetxeari babesa ematea zen udalerriko Renferen geltokia eta bagoiak egoki ditzaten egiten ari den aldarrikapenaren baitan.

Goikoetxeak mugikortasuna duten pertsonen trenetara sartu ahal izateko neurri egokiak jartze-

ko eskatu dio RENFERi, baina ez du erantzunik jaso. Bere aldarrikapen-kanpainak bere Udaleko udal-talde guztiek emandako baldintzarik gabeko babesa jaso du eta change.org atarian jarritako kanpainak dagoeneko 115.000 sinadura baino gehiago bildu du.

FEKOOREk bazkideen esku Deustuko egoitzatik atera ziren autobusak jarri zituen nahi zuten pertsona guztiek Maria Luisaren eskaerari babesa eman diezaioten. Eskaera horien helburua Urduña Bilborekin lotzen duen RENFEren C-3 lineako irisgarritasuna eta, oro har, trenbide-sare publikoko geltoki eta tren guztietakoa bermatzea da.

Manifestazioa Foru plazatik atera eta La Antigua ibilbidetik RENFEko geltokira iritsi zen. Han, FEKOOREko bozeramaileak, Juan Carlos Solak komunikatua irakurri zuen. Bertan, FEKOOREk Maria Luisarekiko elkartasuna adierazi eta honako hau esan zuen: “garraio publikoa esparru guztietan ordenamendu juridikoak onartutako eskubidea da eta ez diogu horri uko egingo eta, horrenbestez, eskatuz eta defendatuz jarraituko dugu”.

Komunikatu hartan, Federazioak honako hau eskatzen zion RENFERi: “har ditzala lehenbailehen beharrezko neurriak geltokiak eta azpiegiturak egokitzeko, guk besteen baldintza berdinetan bidaiatzeko eskubidea bermatuta izan dezagun, eta ken ditzala berehala baztertzen gaituzten oztopo horiek”.

Bestalde, Goikoetxeak ere esker ona adierazi nahi izan zuen deialdira joandako pertsonen erakutsitako babesa zela eta. Gainera, pertsona guztiek tren modu autonomoan erabiltzeko duten eskubidea aldarrikatzen jarraitzeko helburua agertu zuen.

Manifestazioaren jarraipena egin zuen komunikabide ugari: Etb, La Sexta, Telecinco, Cuatro, El Correo, Deia, Cadena Ser, Onda Vasca, Onda Cero eta Euskadi Irratiak, besteak beste.

renfe

BIZITZA INDEPENDENTEKO EREDUA HEDATZEKO PLANGINTZA ESTRATEGIKOA ABIARAZI DUGU

Bizkaiko gizarterako Federazioak proposatu duen Bizitza Independenteko Eredua hedatzeko gogoeta estrategikoko fasea abiarazi du FEKOORek. Eredu horren helburua pertsonen autodeterminatzen eta nola bizi nahi duen eta zer egin nahi duten libre aukeratzeko laguntzea da, bakoitzak bere eskubideak aukera-berdintasunean gauza ditzan eta komunitatean arduraz eta gizartea eraldatzearekin konprometituta modu aktiboan parte har dezan.

Marko hori izango da datozen urteotarako Erakundearen ziklo estrategikoa eta horretan oinarrituta, desgaitasunari buruz pentsatzeko, desgaitasuna ulertzeko eta bizitzeko moduan aldaketa sakona eragiten lagundu nahi dugu eta bide horretatik, gizartea aldatzea lortu nahi dugu oinarritzko eskubideak errespetatzean, aukeratzeko askatasunean eta komunitatean modu aktiboan parte hartzeko aukeran oinarrituta. Hori opa diegu pertsona guztiei.

2016-2019 aldiari begira, talde tekniko bat dagoeneko lanean ari da helburuak eta ekintzak finkatu ahal izateko gogoeta estrategikoko saioak dinamizatzeko. Horretarako, erabiltzaileekin, profesionalekin, boluntarioekin eta interes-taldeekin egindako ebaluazio-prozesua eta zeharkako alderaketa-lana egiten ari dira.

Taldearen abiapuntua FEKOORek gizarteari proposatu dion Bizitza Independenteko Eredua-ren definizioa, oinarriak, helburua eta xedeak jasotzen dituen marko-dokumentua izan da. Aipatutako dokumentuak, gainera, horiek guztiak egituratzeko eta abian jartzeko beharrezko tresnen identifikazioa eta diseinua biltzen ditu aplikazioko hiru oinarrien inguruan: pertsona bakoitzarekin lotuta, babes-sistemearekin lotuta eta ingurunearekin lotuta.

FEKOORek planteatutako Bizitza Independen-

teko Eredua hura egituratzen duten hiru oinarrietan emaitza positiboak lortzera bideratuta dago, inguruneke baldintzak aldatzeko indar berezia jarrita. Horretarako, hautaketa pertsonalen eta babesen egokitzapenaren arabera, babesak eta aukera dinamizatzen dira, pertsona bakoitzaren bizitza independentea lortzera bideratuta.

Eredua hedapenak hurrengo urteotarako honako helburu hauek finkatu ditu: ikuspegia zehaztea eta pertsonen eta gizarteak eraldaketa sozialarekiko dituzten erantzukizuna eta konpromisoa aktibatzea bizitza independenterako baldintzak lortu eta “Aldaketa Sozialeko Agenteen” sarea sendotzeko.

Sareko kide bihurtu, antolatzen ditugun aldarrikapen- eta sentsibilizazio-ekintzetan parte hartu eta zure eskubideak defenda ditzakezu fekoor@fekoor.com helbidearen, 944 053 666 telefono-zenbakiaren edo gure bulegoen bidez (Bilboko Blas de Otero kalea, 63, behea).

**Egin gurekin bat! Bultzatu al-
daketa!**

TARTEKARI SAREA

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ETA DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ZERBITZUA

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saileko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak FEKOORekin hitzarmena du sinatuta Genero Indarkeriaren Biktima diren eta Desgaitasuna duten Emakumeei Arreta emateko Zerbitzua bultzatzeko “Tartekari Sarea - Gizarte-laguntzarako eragile-sarea” Programaren baitan.

2012ko abenduan abian jarri zenetik egin zuen bat Fekoorek ekimen horrekin Bizkaian Gizarte-laguntzarako Eragile-sareko kide bihurtzeko asmoz indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak detektatu eta laguntza eman ahal izateko.

Desgaitasun fisikoa eta/edo organikoa duten eta beren bikoteak edo bikote ohiak eragindako tratu



txar fisikoak, psikologikoak, sexualak edo beste edozein eratakoak jasaten ari diren edo jasaten ari direla uste duten emakumeei laguntza, informazioa, orientazioa eta babesa eskaintzen dien telefono bidezko arreta-zerbitzua da.

Zerbitzua Gizarte Laguntzako Agenteen prestakuntza jaso duten eta desgaitasuna duten hiru emakumek eskaintzen dute. Eman beharreko urratsei buruzko laguntza eta orientazioa, eta tratu txarren egoera hautseko emakumeentzat administrazioak eskuragarri jartzen dituen baliabide guztiei buruzko aholkularitza eta informazioa eskaintzen dituzte.

Agente horiek boluntarioak dira eta haien lana erakundeek eskaintzen dituzten baliabide publikoei buruzko laguntza eta informazioa bideratzen duten gunea (entzutekoa, babestekoa eta pribatua) ematea da. Lan hori betetzeko prestakuntza espezifikoa jaso dute.

Gizarte-laguntzarako agenteek, gainera, prozesuaren bilakaerari buruzko jarraipena egiten dute eragina jasandako emakumeak, baliabide egokira iritsi, eta behar dituen laguntzak jasotzen dituen arte. Beste helburuetako bat genero-indarkeriaren inguruan komunitatea eta ingurunea prebenitzera eta sentsibilizatzerara bideratzen da.

Horrekin lotuta, “Bortxametroa” izeneko diseinatu dute. Erregela baten itxura duen material grafikoa eta didaktikoa da eta eguneroko bizitzan ezkatatuta dauden eta, askotan, nahasi egiten diren edo ezezagunak diren indarkeria-adierazpen ugarriak ikusgai jartzen ditu.

Indarkeria matxistako egoerak detektatu eta horiei arreta emateko adi egotea ahalbidetzen duen tresna erabilgarria da. Kolore ezberdinetako hiru eskala edo mailatan banatuta dago eta haietako bakoitzak alerta-egoera edo foku gorri bat adierazten du.

Indarkeria matxistako biktima bazara edo zarela uste baduzu:

Zure bizitokiaren arabera, deitu telefono-zenbakiren batera eta Gizarte Babeseko agenteetako batek eskainiko dizu arreta.

Bilbo Handia:

688 881 369

Enkartzazioak/Arratia/Durango:

688 662 298

Uribe- Kosta/Busturialdea/Lea-Artibai:

688 660 990

JARRI HARREMANETAN FEKOOR-EKIN:

94 405 17 80

Eguneko 24 ordutan, honako telefono-zenbakira dei dezakezu:

900 840 111

LARRIALDI EGOERA BATEN AURREAN

Deitu **112** zenbakira edo zure hiriko **udaltzaingora**. Ez ahaztu desgaitasuna duen emakumea zarela esatea.

ALDI BATERAKO PLAZAK “ETXEGOKI” LAGUNTZA DUTEN APARTAMENTUETAN

“Partaidetza mantentzeko, autokudeaketa garatzeko eta independentzia bultzatzeko aldi baterako ostatu-alternatiba bikaina da”.

ETXEGOKI Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabidea da. Txurdiragan (Bilbo) FEKOOREk kudeatzen dituen laguntzadun 32 apartamentu biltzen ditu Bizkaian desgaitasun fisikoa duten pertsoneri etxebizitza irisgarriaren, egokituaren eta erabat berritzailearen alternatiba eskaini ahal izateko.

Baliabide hori % 33ko desgaitasun fisikoa edo handiagoa duten, Ieko ATPa (hirugarren pertsona baten laguntza-premia) edo handiagoa duten eta 39/2006 Legean jasotako maila eta gradu guztietan mendekotasun-egoera aitortuta duten 18 eta 65 urte arteko pertsoneri zuzenduta dago.

28 plaza iraunkor eta 4 aldi baterako toki ditu. Ingurunearen kontrol-sistema eta laguntza malguen eta egokituen sistema dute, autonomia, autokudeaketa eta komunitateko partaidetza erraztu ahal izateko.

Apartamentu horiek aldi baterako ostatu-beharrak estaltzen dituzte behar horiek arrazoi pertsonalek, ohiko etxebizitzan egin beharreko lanek, interesdunaren bizitoki nagusian bizitzea eragozten duten gorabehera partikularrek, arreta ematen duen pertsonaren gaixotasunak eta abarrek eragiten dituztenean.

Aldi baterako apartamentu horietan bizi izan diren pertsonen egindako balorazioa oso positiboa da baliabide horrek dituen laguntza pertsonalizatuen eta malguen sistema dela eta. Izan ere, bertan bizi denaren beharretara eta bizimoduetara egokitzen dira.

ETXEGOKI gizarte-berrikuntzako baliabide bat da. Laguntza emateko eta ingurunea kontrolatzeko azken teknologiak erabiltzen ditu pertsonen autonomia pertsonala ahalik eta gehien sustatzeko eta bizi-kalitatea, erosotasuna eta segurtasu-

na hobetzeko. Komunikazioa, entretenimendua, mugikortasuna, aisialdia, osasuna eta beste arlo batzuk lantzen ditugu.

2015ean, Etxegokiren aldi baterako plaza horiek 16 lagunek erabili zituzten (8 gizonezko eta 8 emakumezko); aurreko urtearekin alderatuta, erabilera % 25 handiagoa izan zen.

ELKARTU ERAKUNDEAK “GIPUZKOAKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN EGOERA ETA BEHARREN AZTERKETA- DIAGNOSTIKOA” AURKEZTEN DU

Elkarte erakundeak Donostiako Tabakalera eraikinean ekainaren 9an izan den Jardunaldiaren bidez eman ditu ezagutzera Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharrak aztertzeko helburuarekin egin duen ikerketa-proiektutik datozen emaitzak eta balorazioak, eta aurretiazko diagnostikoaren oinarriaren gainean, guztiz inklusiboa den gizartea bermatzeko beharrezko neurriak proposatu ditu.

“Aniztasunetik berdintasunera” leloarekin elkartuzek antolatu zuen jardunaldian Manuel Lezertua arartekoak ere hartu zuen parte “Ezgaituen eskubideak bermatzea” gaiari buruzko hitzaldia-ekin. Bestalde, mahai-ingurua ere egin zuten honako hauek: Fernando Fantova, Luis Sanzo, Raquel Barroso, Joseba Zalakain eta Sagrario

Iturrate. Bertan, gai hau landu zuten: “Desgaitasuna duten pertsonen inklusioaren dimentsioak”.

“Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharren azterketa-diagnostikoa” eta ahuleziak identifikatzen diren eta jardueraturriak proposatzen diren laburpen exekutiboa eskuragarri daude elkarturen web orrian (www.elkartu.org).

Lanaren helburua desgaitasun fisikoa duten pertsonen taldea aztertu eta bereiztea da. Horrez gain, beren beharrak eta eskaerak identifikatu eta landu nahi ditu bizitza independentea eta aukera-berdintasunean oinarritutakoa aurrera eramateko.

Proiektuak hainbat gai landu ditu: desgaitasuna eta mendekotasuna, ohiko bizitegia eta eguneroko bizitzako oinarriko jardueretako laguntza, hezkuntza/prestakuntza, lan-egoera, desgaitasun fisikoaren dimentsio ekonomikoa, laguntza-produktuak eta mugikortasunerako laguntzak, aisialdia eta parte-hartze komunitarioa, garraioa, osasunaren babesa, gizarteratzearen/bazterketaren diagnostikoa edo generoaren eta desgaitasun fisikoaren pertzepzioa. Hauek dira ikerketa-proiektutik ateratako daturik adierazgarrienetako batzuk:

- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 63,4 etxebizitza librean bizi da, jabetza-erregimenean (Gipuzkoako biztanleriaren % 76,8 bizi da egoera horretan). % 23,2 babes ofizialeko etxebizitzan bizi da, jabetza-propietatean edo azalera eskubidean (Gipuzkoako biztanleriaren % 10,6 bizi da egoera horretan). Desgaita-



sun fisikoa duten pertsonen % 4,9 etxebizitza librean bizi da, alokairu-erregimenean (Gipuzkoako biztanleriaren % 11,5 bizi da egoera horretan). % 8,5 babes ofizialeko etxebizitzan bizi da, alokairu-erregimenean (Gipuzkoako biztanleriaren % 1,1 bizi da egoera horretan).

- Etxebizitza partikularrean bizi diren desgaitasun fisikoa duten eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen % 66,0ren esanetan, jasotzen duten laguntza pertsonala oso ona da (egoitza-baliabidea erabiltzen dutenen artean % 20,0k pentsatzen du hori), % 30,0en ustez laguntza pertsonala ona da (egoitza-baliabidea erabiltzen dutenen artean % 20,0k pentsatzen du ona dela), % 0,0ren ustez normala (egoitza-baliabidea erabiltzen dutenen artean % 25,0ek pentsatzen du hori), % 0,0ren ustez txarra (egoitza-baliabidea erabiltzen dutenen artean % 10,0ek pentsatzen du hori), eta % 0,0k oso txarra (egoitza-baliabidea erabiltzen dutenen artean % 10,0ek pentsatzen du hori).
- Elkarrizketa egindako desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 10,8k ez du ikasketarik (Gipuzkoako biztanleriaren % 3,1 dago egoera horretan), % 36,3k lehen hezkuntza amaitu du (Gipuzkoako biztanleriaren % 35,3 dago egoera horretan), % 8,8k bigarren hezkuntza amaitu du (Gipuzkoako biztanleriaren % 20,7 dago egoera horretan), % 26,5ek lanbide heziketa amaitu du (Gipuzkoako biztanleriaren % 17,6 dago egoera horretan) eta % 16,7k erdi mailako/goi mailako ikasketak lortu ditu (Gipuzkoako biztanleriaren % 23,3 dago egoera horretan).
- Lanean ari diren edo enpleguaren bilaketa aktibo-egoeran daudenen % 81,0k unibertsitateko edo lanbide-heziketako ikasketak amaitu ditu. Aldiz, pentsiodun-baldintza dutenen % 57,0k ez du ikasketarik edo lehen hezkuntza soilik amaitu du.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 13,7 txirotasun latzeko egoeran dago (Gipuzkoako biztanleriaren artean % 4,3 dago egoera horretan). % 26,5 berriz, txirotasun erlatiboko egoeran dago (Gipuzkoako biztanleriaren ar-

tean % 16,8 dago egoera horretan).

- Elkarrizketa egindako pertsonen % 91,2ren esanetan, desgaitasun fisikoa duten pertsonen zailtasun gehiago dituzte aisialdiko jardueretan, gainerako biztanleriarekin alderatuta.
- Desgaitasun fisikoa duten pertsonen % 21,6 errehabilitaziora joaten da. Hala ere, horien artean % 22,7k soilik erabiltzen du izaera publikoko zerbitzu bat.
- Elkarrizketa egindako pertsonen artean, % 30,4 gizarteratze-egoeran dago (Gipuzkoako biztanleriaren % 55,8 dago egoera horretan), % 36,3 gizar-te-bazterketa arriskuan (Gipuzkoako biztanleriaren % 31,8 dago egoera horretan) eta % 33,3 frente gizar-te-bazterketa egoeran dago (Gipuzkoako biztanleriaren % 12,4 dago egoera horretan).

Azken finean, “Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonen egoera eta beharren azterketa-diagnostikoa”n dauden datuen eta balorazioen multzoek desgaitasuna duten pertsonen bizitza-eskubideetan eta kalitatean eragina duten erantzukizun publikoko sistema desberdinak diseinatzeko, laguntzeko, ebaluatzeko eta hobetzeko tresna eraginkor bihurtu nahi dute; gainera, ezinbesteko tresna izan nahi dute gizar-te-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eskubideak eta interesak ordezkatzen dituzten gizar-te-erakundeen eraginean ere.

Ikerketa-proiektu honekin, elkartu erakundeak desgaitasun fisikoa duten pertsona taldearen aldeko ibilbide aldarrikatzailearekin eta berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako gizar-tea lortzeko eraldaketa sozialarekin jarraitzen du, hain zuzen ere, bazterkeria-, desberdintasun- eta diskriminazio-egoerarik ez dagoen gizar-tearen alde. Era berean, Federazioak konpromisoa du taldeari berari, eta inplikaturako eragile publikoei eta pribatuei emaitzen, ondorioen eta proposamenen berri emateko, baita gizar-teari ere, oro har, desgaitasun fisikoa duten pertsonen gizar-teratzea eta berdintasuna lortzeko egin beharreko erronketan borondateak eta konpromisoak batzeko helburuarekin.

DONOSTIAKO AUTOBUS GELTOKIA ETA IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

Osailaren 5ean Donostiako autobus-geltoki berria inauguratu zen. elkartu erakundeak arreta berezia eskaini dio azpiegitura horri irisgarritasun unibertsaleko printzipioa betetzen duela bermatzeko; izan ere, izaera estrategikoa du udalerriko, Gipuzkoako Lurraldeko eta Euskal Autonomia Erkidego osoko mugikortasun politiketarako.

Herritar guztiek, desgaitasuna duten pertsonak sartuta, autobus-estazioa erabil zezaten bermatzeko, federazioak hainbat arrazoi aurkeztu zituen eta arreta berezia jarri zuen azpiegituraren elementu nagusiaren eskakizun teknikoetan eta legaletan; hau da, bidaiariei autobusera igozteko eta autobusetik jaistea ahalbidetzen dien nasetan.

elkartu erakundeak salatu du hasierako proiektuak ez zuela aurrez ikusten nasa irisgarririk. Donostiako Udala hainbat proposamen aurkeztu ondoren, behin betikora iritsi ziren, hau da, guztira dauden 21 nasetatik 5 nasa irisgarri iza-

tea lortu da. Horren aurrean, irisgarritasun unibertsaleko printzipioaren urratze argia osatzen duena salatzea mugatu beharrean, Federazioak, 2015eko azaroaren 18an, udaleko bulegoetan, 18 nasa zituen estazioa aurrez ikusten zuen proposamen teknikoa erregistratu zuen. Proposamenaren zehaztutakoaren arabera, nasa guztiek pertsona orok berdintasun-baldintza berberetan erabili ahal izateko gutxieneko dimentsioak izango zizutuzten, hau da, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan bildutako irisgarritasun unibertsalaren printzipioa betetzen dela bermatzen da.

Hala eta guztiz ere, aipatutako proposamenak ez zuen erantzunik lortu, eta azkenik, irisgarritasun arloan araudi juridikoa larri urratzen duen geltokia inauguratzeari ekin diote; hori dela eta, elkartu erakundeak errekurso administratiboak aurkeztu zuen autobus-geltokiaren exekuzio- eta jarduera-proiektuaren, eta geltokiaren araudia- ren onarpen-akordioaren aurrean.

Erabilitako argudio ofizialen aurrean, elkartuk adierazi du arauak nasa irisgarrien kopurua ez duela zehazten defendatzeak, gai hau mugikortasun murriztua duten pertsonentzako aparkalekuko plaza erreserbatuen gaiarekin edo bainuge- la egokitu kopuru jakin baten eskakizunarekin lotzeak, edo obra berrian arrazoizko doiketa-



kontzeptua aipatzeak lege-aurreikuspen hauek ez ezagutzea dakarrela berekin: translazio bertikaleko plataforma jasotzaileak, ontziratzeko eta ontzitik jaisteko dimentsioak, eraikin nagusiaren interkomunikazioa nasa eta anden bakoitzera arte ibilbide irisgarriak erabiliz, edo autobus guztiak irisgarriak izateko eskakizuna, eta noski, nasa irisgarrietan aparkatzeko duten obligazioa.

elkartuk, Arartekoaren moduko erakundeek edo instituzioek, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak edo Gipuzkoako Desgaitasuna duten Pertsonen Kontseiluak (irisgarritasun unibertsalaren eskubidearen defentsan eta sustapenean erreferenteak guztiak) defendatutako lerro honetan, erantzun argia eman dute, irisgarritasun unibertsalaren printzipioa azkenik exekutatu den proiektuarekin urratuta geldituko baita. Horrela, 2015eko azaroaren 25eko Arartekoaren 2015R-1595-15 Ebazpenak uste du proiektuak irisgarritasun unibertsalaren printzipioa urratzen duela eta hau adierazten du: *“kasu honetan erresebatutako nasa kopuru bat bildu ez duen arauaren helburua betez, nasa kopuru irisgarrian izandako muga orok berdintasun-printzipioaren porrota ekarriko luke”, ondorioz, honako hau gomendatzen da: “Aurrez ikusitako nasen diseinuari dagokionez izapidetzean autobus-geltoki berriaren arkitektura- eta jarduera-proiektua berrikustea. Irisgarritasun unibertsaleko printzipioa bermatuko duen aldaketa onartzea, gure ordenamendu juridikoan aurrez ikusitako irisgarritasuneko baldintza teknikoak egokituz eraikin nagusiaren interkomunikazioa bermatzeko nasa bakoitzera arte. Horretarako, ibilbide irisgarriak prestatuko dira, eskubideen berdintasun efektiboaren eta giza aniztasunarekiko errespetuaren printzipioarekin bat etorri”.*

elkartu erakundeak azpiegitura honetako eta Lurraldearen hirigintza proiektuetako pertsonentzako irisgarritasun unibertsaleko eta diseinuko printzipio legala defendatzen jarraituko du, herritar guztiak aukera berdinak izango dituzten gizarte irisgarriagoa eta inklusiboagoa lortzen lagunduz.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI ETA BURU- NAHASMENDUA DUTEN PERTSONEI ARRETA ESKAITZEKO EREDUAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailak honako hau biltzen duen dokumentu bat egin du: “Desgaitasuna duten pertsoneri eta buru-nahasmendua duten pertsoneri ostatu-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu okupazionalen foru-sarean arreta eskaintzeko eredu”.

Eredua definitzeko prozesu teknikoan elkartu erakundeak, Gipuzkoako desgaitasun fisikoak duten pertsonen erakunde ordezkatzailak, parte hartzeko aukerarik izan ez duen arren, nahiz eta indarrean dagoen testuinguru juridikoak desgaitasuna duten pertsoneri aitortutako eskubidea izan, azkenik, bere posizionamendua ezarri ahal izan du azken txostenean eranskin moduan bildu den ekarpenen dokumentua aurkeztuz.

Federazioaren ohartarazpenak ostatua emateko (egunekoak eta okupazionalak) foru-zerbitzuen, erabiltzaileak diren desgaitasuna duten pertsonen eskubideen defentsan eta sustapenean oinarritu dira, baita emandako arretaren autonomia pertsonala sustatzeko eta komunitateko ikuspegiaren ere. Jarraian, ekarpen adierazgarrienak zehazten dira:

- Ostatu emateko (egunekoak eta okupazionalak) zerbitzuen sarearen antolamenduko ikuspegi komunitarioan eragiteko beharra, baita bizitza- eta lehenetsitako arreta-eredu gisa ohiko ingurunean desgaitasuna duten pertsonen mantentzea bermatzeko beharrezkoak diren baliabideen bultzadan ere.

- “Bizitza sozialean eta komunitarioan parte-hartzea sustatzeko, pertsona erabiltzaileen guztizko gizarteratzea ahalbidetuz” Eusko Jaurlaritzak egindako desgaitasuna duten pertsonentzako Bizitegien Dekretuaren ziri-berroak zehaztutako orientabidean aurrera egiteko aukera ematen duen jarduteko modu berriak ezartzea.
- Desgaitasun fisikoa duen pertsonentzako eguneko zerbitzua edo zentroa bultzatzea. Denborazkotasunean eta normalizatutako baliabideen igarobide gisa konfiguratuta, desgaitasuna duen pertsonaren parte hartzetik abiatuta, autonomia pertsonala eta bizitza independenteko ereduak sustatzera bideratuko dena.
- Ohiko ingurunean mantentzera zuzendutako zerbitzuen eta baliabideen sustapena (Bizitza Independentearen Programa, Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoa, Familia Inguruan Zaintetako egiteko Laguntza Ekonomikoa, Etxerako Laguntza Zerbitzua, Laguntza Produktuen Programa eta abar); horrela, egoitza-baliabide baterako sarbidea ez da alternatiba bideragarri bakar gisa bihurtuko.
- Ostatu-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu okupazionalen erabiltzaileak diren desgaitasuna duten pertsonen eskubideak

errespetatzeko eta sustatzeko apustu erabakigarria.

- Desgaitasun fisikoa txertatzea (desgaitasun intelektuarekin, asaldura kognitiboarekin edo asaldura mentalarekin loturarik izan gabe) ostatu-zerbitzuak, eguneko zerbitzuak eta zerbitzu okupazionalak argitzea, planifikatzea eta garatzea ahalbidetzen duen aldagai gisa kon-tuan izan beharreko desgaitasun moten artean.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politika Sailaren, erakunde kudeatzaileen eta desgaitasuna duten pertsonen erakunde ordezkatzaileekin arreta-ereduaren jarraipen-erakunde sortzea.

Azken finean, elkarturen posizionamenduak desgaitasuna duten pertsonen eskubideak sustatzen ditu guztizko gizarteratzera eta Gipuzkoako ostatu-zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu okupazionalen erabiltzaileak diren pertsonen parte-hartze komunitariora zuzendutako politika sozialen diseinuan eta hedapenean.

AUTOBUSEN ARAUDI BERRIA DONOSTIAN, ETA LAGUNTZA-ZERBITZUA DESGAITASUNA DUTEN PERTSONA BIDAIARIEI AUTOBUS-GELTOKI BERRIAN

2016ko martxoaren 10ean argitaratu zen GAO-n Donostian errepide bidezko bidaiarien hiri-garraio erregularren zerbitzu publikoaren araudia.

Araudiaren I. Tituluak irisgarritasun unibertsalari egiten dio erreferentzia eta hainbat gai biltzen ditu: sarbideko elementuak, irisgarritasun- eta mugikortasun-bermea, mugikortasun murriztua



duten bidaiariekiko ohartarazpena, eserlekuak eta ibilgailuan erreserbatutako eremuak, mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-erregimena eta abar.

Laburpen gisa, mugikortasun murriztua duten pertsona bidaiariei dagozkien gai hauek adieraz daitezke:

- Erosoen iruditzen zaien atetik igo eta jaits daitezke ibilgailutik.
- Gurpildun-aulkian mugitzen diren pertsonak izango dute lehentasuna ibilgailurako sarbidean, autoekin eta haurren aulkiekin edo bizikletekin alderatuta; horiek aurretik bertan ez baldin badaude behintzat.
- Gurpildun aulkien gehieneko kopurua 2 edo lekoa izango da, ibilgailuaren tamainaren arabera.
- Mugikortasun murriztuko pertsonentzako erreserbatutako eserlekuak lekua uzten ez duten pertsonak okupatuko balituzte, gidariak eserleku horiek lagatzeko eskatuko luke.
- Itsuak direnek eta gurpildun aulkian lekualdatzen direnek laguntza eskainiko dien beste pertsona batez lagunduta joan ahal izango dute eta beste pertsona horrek doan bidaiatu ahal izango du.

elkartuk hainbat alegazio aurkeztu zizkion hasiera batean onartutako testuari. Aipatu beharrekoa da arrapala aktibatu baino lehen zoru baxuko autobusetarako inklinazio-sistemak (belaunka) erabiltzeko obligazioari buruzkoa hartu zela aintzat mugikortasun murriztua duten bidaiarien ontziratzera eta ontzitik jaitea errazteko.

Bestalde, Donostiako autobus-geltoki berriak operatiboan laguntzeko eta arreta eskaintzeko zerbitzu espezializatua eta doakoa du, baita desgaitasuna edota mugikortasun murriztua duten bidaiarientzako garraio-zerbitzuak erabiltzearen beharren eta gertakarien konponketa ere. Berezi-ki, mugikortasun-behar bereziak dituzten bidaiariei geltokiko geletatik sarbidea eta igarobidea erraztera dago bideratuta asistentzia-zerbitzua; era berean, zuzenean elkarlanean aritzen da des-

gaitasuna edo mugikortasun murriztua duten bidaiarien ontziratzera edo ontzitik jaitea segurua eta funtzionala izan dadin instalazioetan dauden garraio-langileekin.

Geltokiko kudeatzaileak laguntza-eskatzaileak diren pertsona-bidaiarien eskura jarriko ditu honetarako erraztasunak:

- Geltokian iritsiera jakinaraztea eta laguntza-eskaera aurkeztea horretarako izendatutako lekuan.
- Esleitutako lekutik leihatilen eremura, itxaron-atarira, bainugeletara eta ontziratzeko eremura lekualdatzea. Bai geltokitik irtetetan, bai iristean.
- Ekipajea dagokion nasatik/nasara lekualdatzea.

Bestalde, autobus-geltokiko instalazioetan dagoen operadorea-garraiolaria laguntza hau eman beharko du:

- Geltokiko kudeatzaileari ezarritako aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio pertsona eskatzailea iritsi dela, bidaiaria lehenik konpainia operatzailearengana joaten baldin bada.
- Bidaiariari ontzira igozten edo ontzitik jaisten lagunduko du plataformak, gurpildun aulkiak edo beharrezkoa izango balitz, beste mota bateko laguntza erabiliz.
- Ekipajea kargatu/deskargatuko du.
- Izendatutako eserlekurako sarbidea eta erosotasuna erraztuko du.
- Autobusetan edo autokarretan asistentzia-txakur bat eramango du.

Ibilbide luzeko bidaietan, zerbitzua eskatzen duten pertsonak asistentzia-beharrak eta behar espezifikoa jakinarazi beharko dizkiete eragile hauei: bidaiaren konpainia operatzailea, autobus-geltokiko kudeatzailea, bidaiaria-agentziak eta operadore turistikoak, gutxienez 36 orduko aurrerapenarekin geltokiko web orriaren bidez, edo erabiltzaileei arreta eskaintzeko telefonoa edo posta elektronikoaren bidez. 0 eta 250 kilometro arteko bidaietarako, eskaera geltokian bertan

egin daiteke horretarako gaitutako edozein bitartekoren bidez, eta bereziki pertsona erabiltzaileei arreta eskaintzeko bulegoaren bidez.

Horretarako ezarritako kanalen bidez asistentzia-zerbitzua eskatu ostean, pertsona eskatzaileak topaketarako ezarritako lekuan egon beharko du autobusa irten baino 30 minutuko gutxieneko aurrerapenarekin. Horrela bermatuko da instalazioetatik igarotzea, zerbitzuak erabiltzea eta ibilgailuan kokatzea.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LANEKO POLTSEI DAGOZKIEN IRIZPIDEAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak postuak aldi baterako estaltzeko zerrenden edo foruerakundearen aldi baterako programak garatzeko kudeaketa-irizpideak onartu ditu.

Desgaitasuna duten pertsonak izendatzeari dagokionez, zehazten da desgaitasuna duten pertsonak kontratatzeko Administrazio Publikoentzako Legez erreserbatutako kuota edo negoziazioan ezarritakoa (kuota hori handiagoa izango balitz) lortzen den arte, desgaitasuna duten langileentzako mugatutako txandatik datozen zerrendak egongo balira, 3 kontratatutatik edo izendapenetatik 1 langile horien alde gauzatuko da. Muga berberarekin, desgaitasuna duten langileentzako mugatutako txandatik datozen zerrendak egon ezean, desgaitasun-izaera aitortuta izan beharko duten langileen aldeko kontratuen edo izendapenenen kopuru berbera egin beharko da.

Edonola ere, beharrezkoa izango da Funtzio Publikoko Zerbitzuak, Laneko Arriskuen Prebentzio Sekzioaren bidez, eskainitako postuak eskatutako egokitzapenak zehaztea, edo desgaitasunak ahalbidetzen badu, postua normal garatzea.

Beraz, Administrazio Publikoetan desgaitasuna duten langileen kuotaren lege-betebeharrak

betetzea bultzatzen laguntzen duen neurria da. Horrela, desgaitasuna duten pertsonak ohiko lan merkatura sartzea bultzatzen da.

ELKARTU, SARE SOZIALETAN IKUSGAI

www.elkartu.org **web orriarekin** batera, elkartu erakundea sare sozialetan ere badago, betiere, uneoro eta ahalik eta bizkorren desgaitasun fisikoa duten pertsonekin, erakundeekin eta sozietatearekin komunikatzeko eta haiei informazioa emateko helburuarekin. **Twitterreko** (@[elkartuGipuzkoa](https://twitter.com/elkartuGipuzkoa)) eta **Facebookeko** gure orrien jarraitzaile izan zaitezten animatu nahi zaituztegu (www.facebook.com/elkartu.gipuzkoa).

Horietan, elkartuk garatzen dituen ekintzak eza-gutu eta partekatu ahal izango dituzue, baita sortuko diren eta zuen interesekoak izan daitezkeen berrikuntzak ere. Era berean, zuen aipamenean eta iritzien bidez parte har dezakezue. Jarraitu elkartu-ri!

